

Aiarak EH Bilduren proposamena babestu du udalerritik amiantoa kentzeko

Udalbatzak mozio bat onartu du udal eraikinen diagnostikoa egiteko, legez kanpoko isurketak saihesteko eta Europar Batasunak 2005az geroztik debekatutako elementu hori detektatzeko sistemak ezartzeko

Aiara 2021-11-19 Aiarako Udalbatzak EH Bilduren proposamena babestu du, udalerrian amiantoa kentzeko bidean urratsak emateko. Horrela, Udalak amiantoa duten udal eraikinen mapa bat egiteko konpromisoa hartu du, haien egoeraren diagnostikoa egiteko eta, beharrezkoa bada, horiek kentzeko plangintza egiteko. Era berean, hondakin hori kontrolik gabe ez erretiratzeko eta ez isurtzeko prozedurak ezartzea proposatzen du, bai eta atzemate-sistema bat ezartzea ere, obra-lizentziak eskatzen direnean amiantorik dagoen egiaztatzeko.

Karmele Población Aiarako Udaleko EH Bilduren bozeramaileak azaldu duenez, amiantoa oso ohikoa da etxebizitzetan, enpresetan, eraikin publikoetan... *“Nahiz eta 2005az geroztik Europar Batasunean elementu debekatua izan, gaur egun jende asko bizi da amiantorekin, eta kasu askotan, osasunarentzat zer den jakin gabe. Ez dakigu zenbat dagoen eta non dagoen”*, gaineratu du.

Era berean, Aiarako osoko bilkuran onartutako mozioak jaso du Udalak konpromisoa hartu duela indarrean dauden laguntza ekonomikoak aztertzeko eta, beharrezkoa bada, laguntza osagarriak sortzeko, amiantoa beren jabetzan egokitu edo kendu behar duten pertsonen ekonomikoki laguntzeko.

Halaber, konpromisoa hartzen du sentsibilizazio kanpaina bat abian jartzeko arazo horren berri emateko eta abian jarritako neurri eta ekimenen berri emateko, eta 2022ko Aurrekontu Orokorretan amiantoaren biktimei konpentsazio-funtsa sartzeko eskatzeko.

Aiara respalda la propuesta de EH Bildu para retirar el amianto del municipio

El pleno ha aprobado una moción para realizar un diagnóstico de los edificios municipales, evitar los vertidos ilegales y establecer un sistema de detección de este elemento prohibido por la Unión Europea desde 2005

Aiara. 2021-11-19. El pleno del Ayuntamiento de Aiara ha respaldado la propuesta de EH Bildu para ir erradicar la presencia de amianto en el municipio. Así, el Ayuntamiento se ha comprometido a elaborar un mapa de edificios municipales que contengan amianto para realizar un diagnóstico del estado de los mismos y si fuera preciso, planificar su erradicación y retirada. A su vez, plantea establecer procedimientos dirigidos a evitar retiradas y vertidos incontrolados de este residuo y a establecer un sistema de detección para que cuando se soliciten licencias de obra se compruebe si hay presencia de amianto.

Según ha explicado la portavoz de Eh Bildu en el Ayuntamiento de Aiara, Karmele Población, la presencia de amianto es muy habitual en viviendas, empresas, edificios públicos... “A pesar de ser un elemento prohibido en la Unión Europea desde 2005, son muchas las personas que hoy en día viven en estrecho contacto con las fibras de amianto, en muchos casos, sin ser conscientes de lo que supone para la salud. No sabemos ni cuánto hay ni dónde están”, ha añadido.

A su vez, la moción aprobada en el pleno de Aiara recoge el compromiso del Ayuntamiento para analizar las ayudas económicas vigentes y si fuera necesario crear ayudas complementarias para ayudar económicamente a aquellas personas que tengan que afrontar la adecuación o eliminación del amianto en su propiedad.

También, se compromete a poner en marcha una campaña de sensibilización para dar a conocer este problema e informar de las medidas e iniciativas puestas en marcha, así como a solicitar que en los Presupuestos Generales de 2022 se incluya un fondo de compensación a las víctimas del amianto.